

KAXAĀENKAREN GORABERAK ETA AURIAKO JAYA ⁽¹⁾

Orain ni bezela, itzaldiren bat irakuġi beaġean daudenak, maiz onela asi oi dira: «buru-austerik geyen nere itzaldi onen gaya auke-
ratzeak eman dit: gai egoki asko baitziran eta zein aġtu ezpainenkian,
egokiena, aukeratu nairik eta ori zein zan ez jakiġnik, luzaro ezbyan
egon naiz eta loġik asko izan det».

Nik—argi ta garbi aitortzen dizutet—oġtan buru-austerik batere
eztet izan, itzaldi au eskatu zidan Jaunak, bere gaya ere eman
zidalako. «Zure itzaldia—esan zidan—euskeraz eġin ezazu, eus-
keratzaz ez ordea, gai ori orain aġte ere maiz erabili degu-ta. Le-
keitio'ko oitura zġġen bat edo beste aġ zazu—kaxaġenka edo olako
zerbait—eta ortaz jardun ezazu, Euskal-Esnalearen asmoz eta agin-
duz egiten diran solas oyetan ere, aditzaleak aspġrtu ez ditezen,
gayak aldatzea bezelakorik ez dago-ta». Ori esan zidan, eta buru-
auste gutxiago izan nezan, nere jardun onen gaitzat urak aipaturiko
kaxaġenka aġtu det.

Lekeitio'ko oitura zġġa dan kaxaienka ori aldi baten nola egiten
zan eta gaur egunean nola egiten dan azaldu nai nuke. Beste uritan
egiten danik eztet uste eta gauza berezia dan ezkerero, gogo onez
entzungo dezutela deritzat. Besterik gabe, asi gaitezen.

Kaxaġenka, orain egiten dan bezela, antziġakoaren geriza, itzal,
oroipena besterik ezta. Antziġa-antziġatik ba zuten Lekeitio'ko
itxasgizonak beren anaidia, beren kofradia (2): anaidi onek eliz-
nagusian zeukan San Pedro'ren izeneko kapġla aundi-edġra: urteko
igande ta jayetan Mesa emateko beren apeza ere ba-zuten eta oġta-
rako beaġ diran eliz-jantziak ere bai. San Pedro'ren jaya, batez

(1) Donianez Aurian eġin oi zan jaya aipatu gabe irakufi nuan,
itzaldi au Donostiko Novedades-Antzokian: orain ordea, Auriako
jai ta kaxaġenkaren beġiak era batera emango ditut, ageri zġġetan
ere bi gauza oyek elkaġekin nastuak daude-ta.

Gaur, batzuek «kaxafanka», geyagok «kaxaġenka» esaten dute.
Anaidiaren saġtu-irtenetako liburuak lenbizi «kaxa-aldaketak» geroago
«kaxa-ġenka» dakaġ.

(2) Araġtzale, beste itxasgizon ta uriko auzorik geyenak ziran
bazkide.

ere, aundiro ospatzen zuten Anaidi ontako bazkideak, órtañ diru asko eralgiz, 1562-garén urtean Olabide'tar Joan, Astigarako seme ta Lekeitio'ko auzo zanak, Bizkai'ko Zuzendariaren-Kořejidorearen—auréan aito'rtu zuanez (1).

Urte bañuan beren irabaziak begiratu, zaitu ta banatzeko, bi ogasunzai (bi mayordomo) aukeratzen zituzten itxasgizonak urteoro: ori antziña, geroago ogasunzai bákara ta orain batere ez.

Orain diruzaya autatzen dute bein betiko ta lendakari edo buruzagia urteoro ;baña antziña etzan olakorik: aipatu ditudan bi ogasunzai ayek zituzten gaur beste orienak diran zeregin eta eskubide guziak, *eta askoz geyago ere bai*. Anaidiak bere ageri, paper eta diruak gordetzeko zuan kaxædo kutxa, bi ogasunzai ayetatik zärenak euki oi zuan bere etxean. San Pedro biaramonean eramaten zuten kaxa ori ogasunzaitza utzi beár zuanaren etxetik ártu beár zuan befiaren etxera, ospe aundiz eraman ere, onela ogasunzaitzaren jabe egiten zutela adierazteko. Kaxarénka ór'tik datór.

Jai au zala-ta, Lekeitio'ko itxasgizon eta apezzen ártean eztabaida, liskár eta auzia so'rtu ezpa'lira, antziña nola egiten zan gaur ezkenuke jakingo noski; baño zorionez edo zoritxaréz, apezak etzioten jai ori ongi iritzi ta amazpigarén mende edo gizaldiaren lenbiziko urteetan Kalaorako Gotzai jaunak jai ura, egiten zan bezela, galerazi egin zuan. Ark galerazi;baña itxasgizonak gaizki iritzi zioten galerazte óri, ta Felipe III, Españiako Erége ta Bizkai'ko Jaunaren auzitegira jo zuten bere iritiziko okér ori zuzentzeko ta aren agintza beren alde erdietsi ere bai. Lenbiziko aldian esan ba'lie apezak Anaidiko bazkideai: zuren jai ori órela ospatzea ezta sori, ezta zilegi; Eleizak ori eragozten du: olako zerbait esan ba'lie, liskár aundirik etzan izango nere ustez; baña dirudiane, luzaroan ere etzien galerazi: jaya, urtero egiñaz, oitura zâra izatera eldu zan eta érien oitura zâr eta txarak aldatzea, eginkizun zail eta gaitza izan da beti. Amets eta gezurá dirudi; baña, urte batzuek gora-bera, amazpigarén gizaldi osoan iraun zuan eztabaida gogaikarí onek. Arazo au erdiz-erdian utzi dedala iñork esan ez. dezan, gertaerarik nagusi ta galenenak urtez-urte aipatuko ditut.

1607-garén urtean, Bizkai'ko Epaikari nagusi Amezketa'rá Antoniok bialita, etori zan Lekeitio'ra Alonso Lopez Kordiko, lentxeago aipatu dedan agintza ori bete-eragiteko. Órtarako egin zituan lanen beki, orduan idatziriko ageri batek ematen dígu. Onela dio: «Lekei-

(1)Anaidiko idartzar'tegi, 1.º bilgo, 12 g. bilabide 8 g. zenbaki

tio'ko itxasgizonak ospatzen dituzten jai oyek San Pedro-aufegunetik Uztalaren bigarren eguneraño irauten dute. San Pedro-aufegunean, afatsaldeko bi orduak ezker, arantzale, itxasgizon eta beren bi ogasunzayak elkarékin biltzen dira, antziñatik oitura dutenez, jai ontarako dantzari ta apostoloen ordezkioak autu ta, izendatzeko. Beren eskubide ori zaitu ta begiratu beaf dedala deritzat eta ofengatik auxe agintzen det: Orain diran eta aurerakoan izango diran bi ogasunzai oriek aukeratu bitzate Anaidiko bazkideen artean, San Pedro, San Andres eta San Joan antzeztu ta irudituko dituzten iru lagunak. San Pedro egunean beren Meza nagusia euki bezate itzaldi ta guzti, ta Meza ortan apostoloen ordezkariok beren zomofo, koroe, gañeko jantzi zabal eta zetroekin antxe aurkez beude. Ufengo egunean, afatsaldeko bi orduetatik iruretara, anaikide guziak bildu bitez eta uriko agintari ta apezak ere bildu-arazi bitzate: guziak uriko ikuin edo bandera arturik, bijoaz San Pedro'ren kaxa duan ogasunzayaren etxera: onako aldi ta garayetan izan oi dan itzal, ospe ta aundizurenez bebiltza uriko kaleetan zear eta egun ontan beti egin dan ibilaldia egin bezate. Ibilaldi ontan, San Pedro irudituan anaikidea bere zomofo, burestun eta jantzi zabalarekin, giltza ta zetroa eskuetan dituala, *kaxa gañean* bjoa, eta San Andres ta San Joan antzeztu dituztenak—oyek ere beren zomofo, koroe, jantzi ta zetroekin—kaxaren bi aldamenetan. Esan dan bezela ibilaldi ori egin ondoren, San Pedro'ren kaxa bi ogasunzai berietatik adiñez zafena danaren etxera beramate eta ufengo urterarte antxe bego. Iru apostoloen ordezkari izan diran oyek, beren zomofo ta beste ezaupideak, nai izan ezker, Garagarila'ren 27-an asi ta Uztalra'ren bigarren eguneraño erabili ditzakete; baña ez oyek ez dantzariak, beren oldez nai ezpa-dute beintzat, beren dantzakin inortxoren etxera joan beafik eztute.

Gaur diran eta aukerantza izango diran endore edo alkateai, Lariz apezburu ta beste apez guziei agintzen diet nere erabaki au egin eta bete dezatela eta ezertan ere eztezatela igaran eta autsi; bestela, bete beaf dan gutun ontan dauden neke ta nik ezarfen diedan bosteun dukaten isunpean eroriko dira. Ontan zabaaf, biguri ta agintz-ausle izan ba-ditez, beren kaltez bide ta neufi gogorak artuko dirala jakin bezate. Lariz eta beste apezak, befiz, elizgizonak diralako, beren egiñen ortatik datofzkien etekin eta irabaziak ere gal bitzate ta afotz ta atzeritartzat etsi ta eukiak izan bitez» (1).

(1) Anaidiko idaztizartegi, 2g. bilgo, 4 g. bilabide, 1.º zenbaki.

Itxastáren Anaidi ta apezén árteko auzi au zérgatik sórtu zan or' ageri da. Eliz nagusiko beren kapilan bazuten itxasgizonak San Pedro'ren irudia; baña—nik eztakit zergatik—ibílaldian etzuten erabiltzen lenbiziko aldi artan beintzat. Urte batzuek geroago, bai; baña lenbiziko aldi artan, iru apostoloen irudi izateko, iru anaikide aukeratzen zituzten urteoro, ta kapiña artako eliz-jantziz beren buruak edérki apaindu ondoren, San Pedro iruditzen zuan anaikidea kaxa gañean jártzen zan eta besteak, kaxaren bi aldamenetan, onela ibílaldia egiteko. Apezak gaizki ártu zuten ori ta esandako agintza bete-arazteko dei egin zienean, zalaparta ta iskanbila izan ziran Lekeitio'n: batzuek apezén alde, besteak—dirudianez geyenak—itxastáren alde: apezak Kalaórako Gotzai jaunarengana, arantzale ta beste itxasgizonak Éregeren ordezkongana jo zuten beríz ere.

Uztaila'ren 30-an idatzi zien Éregeren izenean Gotzai jaunari, esanaz: «Gure agintza bete-arazteko Lekeitio'ra biali genuan ordezkari Alonso Lopez Kordido'ri, Lariz, uri artako apezburu ta bere aldeko beste batzuek, eman genion zeregiña auérra eramatea galerrazi nai izan zioten: ordezkari ori ta laguntzen zienak gaizki ártu ta erabíli zituzten, arpegiz arpegi erdeñu, irain eta lotsagabekeri asko esanaz. Ori dala-ta, obendun orien auzia gure auzitegira etóri da; baña merezi duten zigoña galerazteko asmoz, zuk jaun orék, Lariz eta beste batzuen eskabidez, agintza berriak eman eta elizneke (zentsura) berriak ipiñi dituzu uri artako itxasgizon eta beren laguntzaleen aurka. Oyek, obendun ba'lira ere, elizgizonak eztira-ta, beren auzi ori elizaz-atazkoa dalako, neroni dagokit eta nere epaikariak erabaki beár dute. Ori ta guzi ere—jakin-arazi didatenez—auzi au zere auzitegian auérra daramazu: itxasgizon orien aurka. ipiñi zenituan zigor' nekeak, egunerik egunera astunago egiten dituzu, or'tan bidegabezko indár eta irain ageria egiten dizkiezularik. Auzi onen ardura neronek ar dezadala eskatu didate ta, oréngatik, auxe agintzen dizut: «Itxastáren Anaidi or'tako bazkide ta ogasunzayak, baldin éri-gizonak ba-dira ta beren auzia elizaz-atazkoa ta neroni dagokidana, auzi ori utz ezazu, ez or'tan auérra járaiki ta orain arte egin dezun guzia, nere Auzitegira biali, nik izendaturiko epaikariak, alde bat eta bestea entzun ta gero, zuzen erabakiz, bakoitzari berea eman dezayoten. Auzi ontan zer ekusi duten apez oriek, nai ba-dute—egoki ba-deritzate—zortzi egunen báruan nere auzitegira betórz, edo or'tarako eskubidea emanik, beren ordekoa bidali bezate. Itxastaren anaidi oren eta bere laguntzaleen kaltez erabaki ta eman

dituzun zigo^r ta eliz-nekeak, irurogei egun ba^ru atzeratu ta ken ditzazula *eskatzen dizut* (1).

Auzia ontan zegoala, 1608-ga^ren urteko San Pedroak eldu ziran, eta Gotzayaren zemai, zigo^r eta nekeak gora-bera, Lekeitio^oko a^rantzale ta itxasgizonak beren jayak, au^rerago bezelaxe, egin eta ospatu zituzten. Ori egiⁿaz etziran ase ta naikotu; beren Anai-diaren eskubideak zaitu ta begiratzeko, on eta egoki izango zala-ta, Amezketar Kristobal, ango zin-emaleari (eskribauari) jai oren ageria idatzi-arazi zioten. Jaun onek bere ageri o^rtan—beti berdiⁿak izan oi diran gauzak alde batera utzi ezker^o—auxe dio: «Nere begiz ekusi nuana idatziko det. Elizan arat^z-otoitzak—Besperak—abestu ondoren, o^r irurak inguruan, uri ontako itxasgizonak, beren ogasunzai befi ta za^rak, endore ta ziⁿegotziak, bertoko gizon presturik geyenak, beste e^ri batzuetatik etori ziranak ere bai, guziak batean beren dantzari, tuntun eta uriko iku^riⁿarekin, zeregiⁿa utzi bea^r zuten bi ogasunzayetarik za^renaren etxe au^rera joan ziran. San Pedro^oren kaxa kalera atera zutenean, mutil gazteak beren soin-buruetan a^rtu zuten. Gotzai-tu^rua. (mitra) buruan, agure za^r-agu^r-ga^ri antza ematen zion zomofoa arpegian, elizan erabi^li oi diran bezelako jantzi zabala soⁿean, giltz ureztatua eskuan zituala, San Pedro iruditzen zuan gizon bat kaxa gaⁿera igo zan. San Andres eta San Joan antzezten zituzten biak-oyek ere beren zomoro ta jantzi zabalekin-kaxaren bi aldamenetan jari ziran, eta onela, beren tuntun, dantzari, mamu ta zomorodunekin, batzuek kaleetan zea^r zalditxo gaⁿetan zebiltzala ta beste batzuek su-izkiluz punpada edo sunpak jau^rtitzen zituztela, joan ziran lenbizi, uriaren goiko mugaraⁿo, gero be^riz kaira ta itxasoak jotzen duan naza mutu-^reraⁿo, eta onela, aspaldi ontan egin dan bezelaxe, ospe aundiz eraman zuten kaxa Sanjoan Gereaa, bi ogasunzai be^rietatik adiⁿez za^rena zanaren etxera, eta antxe utzi zuten. Ibi^laldi ontan iⁿork etzien zozto^r eta eragozpenik ipiⁿi: pake ede^rez, alaitasun eta pozez eta San Pedro^oren ornen eta aundizurenez egin zuten guzi au. Ibi^laldi ontako lagun guziak e^ri-gizonak ziran eta goiko konbentuko bi praile dominikok lagundu zien. Apezen bat, ekusmiⁿez. e^riko gizonak bezela jantzita eta arpegia zomoro^z estalita ibi^li ezpa-zan beintzat, eliz nagusiko apezik batxo ere etzan ibilaldi ontan agertu. Beren nagusiak galerazi egin ziela erantzun zuten». Amezketaa zin-emaleak bere agerian orixe dio (2).

(1) Anaidiko idazti^zartegi, 2 g. bilgo. 4-g bilabide: 2-g zenbaki

(2) Anaidiko idazti^zartegi, 1.º bilgo 12-g. bilabide, 2-g. zenbaki.



Jai oyek elizatik ataz edo landa ospatzen zirala-ta, órtaz sórtu zan auzia berari zegokiola uste zuan Éregek edo onen izenean zebil-tzenak. Pedro Manso Jaun bikain, Kalaorako Gotzayaren iritzia ordea etzan ori. Bere eskubideak ongi zaitu zituan Gotzayak, lenbi-ziko aldi artan beintzat eta Lekeitio'ko itxastafén Anaidiak pizka bat burua eratxi ta makuítu beár izan zuan. Makuítu zuan bai; baño apezai ere makuít-arazteko asmoz.

1611-gaíen urteko Garagaríaren 18-an Joan Otxoa Apefégi'k eskabide bat zuzendu zion Gotzai jaunari, San Pedro'ren Anaidiko ogasunzai ta bazkide guzien ordez. «Jauna—esaten zion—San Pedro gure Zaitzalearen egunetan jayak ospatzeko oitura zâfa, *noiztik onakoa dan ere iñork eztakian oitura degu*. Jai oyetan, oarkebex, elizako jantzi ta gauzaren batzuek erabili genituala-ta, zure aúretikoak neke gogorpean ori galerazi ziguten. Lenbiziko urteetan—dirudianeze—agintza oriek beár bezela—beár zan ajola ta begirapenez—etziran bete; baño igaz zeóren eta zure aúretikoen agintza oro zeatz betetzeko asmoa, guziok aburu ta iritzi batez artu genuan. Auferakoan ez bazkide ez dantzari ez beste iñork gauza onetsirik. ez dezala jai oyetan erabili ta guzia elizako legeen arauz egin ditela: ori izan zan gure erabakia, ta jai oriek zoztoí eta eragozpen gabe ospatu alditzagun, nik guzien izenean geren asmo ona, geren mentasun zintzoa agertu ta jakin-arazten dizut. Aitoípen onen ondoren Aperegik bere eskabideak aúrkeztu zizkion Gotzai jaunari, eta onek eskatzen zion bezela jayak egiteko baimena eman zion, erantzunaz: Gure aúretikoak arazo ontan artu zituzten erabakiak eta eman zituzten agintzak, beár bestean sendetsi ta indártuz, San Pedro'ren Anaidiko bazkideai, eliz-nekepean erori gabe ta bidezko dan bezela, beren jai oriek aundiro ta eraspen zintzoz ospatu alditzaten, geren baimena ta ortarako eskubidea ematen dizkiegu. Orain arte bezela, jai oriek beren dantzari, mamu ta guzi ospatu ditzakete; baño gauza ta jantzi onetsirik erabili ta Elizaren legerik ezertan ere autsi gabe. Guzi au ospatsuago ta Jangoikoaren ornen geyagoz egin diten, Lekeitio'ko apez guziei agintzen diegu itxasgizonak San Pedroz eta bere aúregunean dituzten elizkizunetara joan eta aúrkeztu ditezela utsik egin gabe, bestela Meza emateko esku-bidea galduaz gañera, berogitamaf dukaten isunpean eroriko dira».

Aperégik, Anaidiaren izenean, beste eskabide bat ere aurkeztu zion Gotzai jaunari. Donianez—esaten zion—afats-ótoitzak bukatu ondoren, Lekeitio'ko itxasgizonak uriko agintari ta apezakin, «Auria» deritzan toki batera joan izan oi dira urteoro, Doniane eguna ospatuz, San Pedroetako jai ta pozaldiak, Jangoikoaren omen eta aintza geyagoz nola egingo otediran antxe elkarékin ekusi, erabili ta erabakitzeko. Au ere aspaldidanik onelaxe egin degu; baña orain, entzun degunez, apez guziak, edo beintzat geyenak, Auria'ra itxasgizon eta uriko'agintariékin eztirala geyago joango árokeriz esan dute. Ori bérikeria litzate: ortik arantzale ta toki artara dijoazen beste guzientzat naigabe ta lotsaria letoezke ta Doniane ta San Pedro egunak, orain arte bezala, guzientzat pozkoarak ez lirake izango. Au dala-ta, áren apez oyei agindu ezayezu Auria-ko batzár órtara arantzale, agintari ta enparauekin joan ditezela, orain arte berak eta beren aúretikoak egin duten bezela: eliz-nekeen bidez órtara beartu itzazu.

Gotzai jaunak, itxasgizonen eskabide au ere egin eta betetzeko agindu zien apezai, bestela Meza emateko eskubidea kendu ta béreun dukaten isuna ezañiko ziela esanaz; baño agintza idatzi zuana pizkaren bat nastu egin zala dirudi, bere ageri ortan Donianeko jayen orde, San Pedroetakoak aipatzen ditu-ta (1).

Garagarñilaren 23-an. apez guziak eliz-gelan bilduak zeudela, Zeañeta eta Aransolo ogasunzayak, Gañate zin-emañearen (notarioaren) auréan eta bere bidez, gatzigatu zizkien Gotzayaren bi agintza oriek. Beren nagusiak erabaki ta agintzen zuana egin eta beteko zutela erantzun zuten apez guziak. Urte batzuetan bete zutela dirudi; baña 1655-garén urtean befiz ere, Auria'ko ibilaldi au zala-ta, asére ta goraberak izan ziran. Doniane arátsaldean, itxastár eta auzorik geyenak udaletxeko jaunekin, eliz-nagusiaren goi aldeko atarian bilduak zeudela, irten ziran apezak elizatik. Oyetatik iruk—Agñre, Aransolo ta Gamarak—galdetu zienean zergatik etzijoazen beste enparauak bezela, ... órtara beartuak etzeudela erantzun zuten eta bakoitza *gogoak eman zion tokira joan zan*. Antonio Lopez del Puerto apezburuak ere ibilaldi ontara uts-egin zuan. Au, zala-ta, Anaidiko ogasunzayak, Zuberogoitia ziñ-emalea lagun zutela, bere etxera joan zitzaizkan eta arebari galdetu zien neba non zan eta Auria'ra zergatik etzan etofi. Etxean zala, baña besterik etzekiala erantzun zien árebak, eta ogasunzayen eskabidez zin-emaleak gertaera guzi onen ageria idatzi zuan. Urte órtako Uztala'ren 21.an

(1) Anaidiko idartzizartegi, 2-g. bilgo, besteen jarai.

Bakio ta Likona, ogasunzai beñiak; Gotzai jaunari esaten zien: «Jauna, uri ontako apezak orain arte gurekin etofí dira beti Auria'ko zelaira Doniane arátsaldez; baña orain bat-edo batzuek kezakak ornen dituzte ta eztute nai etofí. Ería, bere oitura on eta goragañiak zaitzen eztiralako, artega ta urduri dabil, asére da ta pakez ezin euki genezake. Eñiaren asére ontatik kalte ta ezbeár aundiak, etofí ditezke. Agindu ezayezu ba apez oyei aspaldi degun oitura begiratu ta gorde dezatela, bestela ofitik lekoórzken kalte guziak, oitura ori autsi dutenai egotzi ta ezariko dizkiegu. Gotzai jaunak, asére ta kalteak galeraztearén, 1611-garén urteko erabakia egin eta bete zezatela agindu zien beñiz apezai, antxe bertan aipatzen diran neke ta isunen zemaípean. Beste eskubiderik zutela ba zeritzaten, bere ordezkariarengana jo zezatela esaten zien; baña bien bitarítean ezertxo ere beñiztatu ta aldatu gabe (1). Ufengo urteko Donianean baño len apez guziei gaztiagu zien Gotzayaren agintza beri au ere. Egin eta beteko zutela erantzun zuten apezak; baña Antonio Lopez del Puerto apezburuak Gazteiz'era—Bitoriara—joan beára zuala ta etzekiala egun ayetan Lekeitio izango zan ala ez: Lekeitio'n egon ezkeru urte artan eta enparauetan ere bere Nagusiaren agintza ori betetzeko gertu ta prest zegoala. Ori idatziz erantzun zuan eta ufengo egunean Anaidiko ogasunzayak beñiz aurkeztu zitzaizkion esateko: oyek aitzaki ta akiakulak besterik etzirala: nai izan ba'lu Gazteizko osteru ori lenago ere egin zezakeala: nolana ere Gazteiz'era joatea gerorako utzirik, bere eginbeará bete, zezala lenbizi, eztabaida, zarata, liskañ, auzi ta diru-sautzeari biderik eman gabe.

San Pedro'ren Anaidiko bazkideak nai zuten guzia iritzi zuten. Urte artan apez guziak—Antonio Lopez del Puerto apezburuak ere bai—uriko agintari, arantzale ta beste auzoei Auria'ko zelaira lagundu zien, *bonetea* buruan eta *manteoa* soñean zituztela. Gizon-nezkoak an egin zuten dantzaldia bukatu ondoren, guziak kai ta naza mutuferañio itzuli ziran, andik eleizaren bealdeko ildegira, ta antxe elkarí agur egiñaz, bukatu zuten egun artako ibilaldia. Guzi au onelaxe egin zala Urkiza'tar Martin zin-emañeak idatzi zuan ogasunzayen eskabidez (2).

¿Zergatik ainbeste alegin apezak Auria'ra eramateko? Ageri zarak diotenez, antziña—lenbiziko aldian, gero ez—Auria'ko zelai artan, beste enparauak dantzaketan ziarduten bitarítean, Anaidiko

(1) Anaidiko idatziartegi, 2-g. bilgo, besteen jarai.

(2) Anaidiko idatziar. 2-g. bilgo.

ogasunzai, uriko agintari ta apezak San Pedro'etako pozaldi ta jayak antolatzen zituzten, oñtaz elkafen artean itz-egiñaz. Apezak arazo ortan zer'ekusi ba-zutela-ta, Auria'ra ez joan nai izatea, gaizki aĩrtzen zuten Anaidiko bazkideak, eta buru ziran ogasunzayak batez ere.

1655-gären urteko Doniane arãtsaldean, apezburua ta beste batzuek Auria'ra etzerala joan lentxeago esan det. San Pedro biramoneko ibilaldira ere uts-egingo ote-zuten belduĩ bide ziran Anaidiko bazkideak. Beren gauzak antolatzeko batzãra egin zuten. Gargaĩila'ren 27-an Talayako beren etxe ta elizatzxoan bildu ziran endore, ogasunzai, txalupa-jabe ta beste bazkide asko. An bildurik erabaki auek arũu zituzten. San Pedro-jayetarako txalupajabeak izendatu dituzten dantzariak, orain arte etxerik etxe eskean ibili dira: ortik esamez eta makur asko etofĩ zaizkigu: augatik urita'ren pakerako erabaki ta agintzen degu dantzari oriek auferakoan ezitezela etxerik etxe eskean ibili ta oren ordez Anaidiaren ogasunetatik eman ditza-yela ogasunzayak, orain arte eman dizkien ogoitalau erealez gañera, beste berogeitamar; baña mendexãrakin batasun eta anaitasun kutuna degulako, dantzariak eri ortara eskean joateko baimena ematen zaye. Dantzariak iñortxori, ez bazkide ez uriko agintariri, baldin bakaĩrik ba-dijoa, ez bezayote lagundu, guztiak elkarĩekin dijoazenean baizik: erabaki au igaran eta autsi dezan edozein dantzarik, amar dukat ordaindu bitza Anaidiaren duru-eralketarako, ta ortaz gañera kai ontako txalupa-jabek bere batelean ez beza arũu, beste orĩnbeste dukaten iñsunpean.

San Pedro biaramoneko ibilaldia nazara zetoferako, alki ta esertokiak jaĩrtzen izan dira kai gañean eta kaiburua deritzan etxearen aũfe ta bi aldamenetan. Lagun asko, bai elizgizonak bai bestelakoak ere, antxe eserita gelditzen izan dira, San Pedro'ren *irudiari* aufera jafaitu gabe. Ori gaizki dago-ta, iñor gelditu eztedin, auferakoan alki ta asertokirik ez bite jaĩ. Oro bijoaz aufera ta San Pedro'ren irudiari naza mutuferatãño jaĩrai ta lagundu bezayote, guziak antxe jeurt eta bira egiteko (1). Erabaki au dantzarietaz

(1) Naza mutuferatãño joan eta an bira egiteari leba edo garãntzi aundia ematen zien arãntzaleak. Beñola antxe egiten ornen zan San Pedoren *irudia* itxasora, uretara, jaĩrti nai zutelako keñua, arãin asko emango ote-zien galdetzen ziotela. Norbaitek, bere izenean, bayetz erantzuten zuan eta zemaya oñtan gelditzen zan; baña iñoz, nai etzutela, irudia uretara jausi zitzayela ere esaten dute. ¿Egia ote?—Eztakit. Gaur egunean ere kiñakada deritzayoten irudiaren makurtze edo ayerkundea, antxe naza-muñurean egin oi da.

tigatu bekie Anaidiaren izenean, zin-emaiearen (notarioaren) bidez: Anaidiaren kaxan gorde bite ta beár izango dan edozein garaitarako, antxe bego. Ogasunzayak Garagarĩlaren 27-an bertan gaztigatu zien erabaki au Ibieta eta Goikoa, lenbiziko ta azkenengo dantzariet beste guzien orde, eta aditurik, egin eta beteko zutela erantzun zuten.

Gero, Intxaúruga apezaren bidez, beste guziak ere elizgelan bildu zituzten, Anaidiaren ageri ta paperak erakutsi ta bere esku bideak beíz jakin-arazteko. Apezak elkarrekin bilduta luzaro egon ornen ziran: gauzak ongi aztertu ondoren, Intxaúruga'k guzien izenean erantzun zien: «Anaidiaren ibilaldi ta jayetara joateko gertu zeudela ta auéerakoen ere egongo zirala». Esan eta egin, ufengo egunean an ziran apez guziak batek ere uts-egin gabe. Oyek elizabestiak kantatzen zituztela ta *San Pedro'ren irudia kaxa gañean* zeramatala, dantzari, musika ta laguntalde aundiarekin, beren ibilaldia oso ederki ospatu zuten. Aranegi kalean zeár naza muturera, gero beíz Atea deritzan uriaren eguerdi-aldera, Bastéretxea'tar Mikel bizi zan etxe auéeraño. Apez guziak bira egin zuten naza muturean, eta ez apezik ez bestelakorik, iñortxo ere etzan bidean gelditu, auéguneko erabakiak agintzen zuana, guziak bete zutelarik. Zuberogoitia zin-emaiearen ageriak órelaxe dio (1).

*
* *
*

Zein urtetan eztakit; baña azkenengo ageri onek dionez, 1655-garén urte au baño len, Lekeitio'ko itxastarak beren ibilaldia egiteko era, pizka bat aldatu zuten. Lenbiziko aldi artan—auérago, esan dedanez—San Pedro iruditzen zuan gizon bat joan oi zan kaxa gañean; gero ez. Kaxa gañean San Pedro'ren irudia jartzen zuten eta apostoloen ordezkariak, len esan dedan bezela jantzita, kaxaren atzetik, irurak oñez, joaten ziran. *Len bezelaxe jantzita esan det*, eta ori egia dala ageri askok on egiten dute. Baña ori ¿nola izan diteke? ¿Elizkizunetan erabili oi dan gauza ta jantzi onetsitik—bedeinkaturik—geyago bein ere ez erabiltzeko erabakia ez al zuten artu? 1611-garén urtean Gotzai jaunari ez al zien ori esan eta agindu? Anaidiko gizon ayek gezurtiren batzuek ote-ziran? Nik ori eztet sinetsi nai. Lenbiziko jantzi ayek onetsiak zirala ba dakigu; geroko

(1) Anaidiko idaztizartegi, 2-g. bilgo.

oyek ere elizkizunetan erabili oi diranen antzekoak zirala ageriak argiro dasate; baña onetsiak ziranik, ez. Beár bada, gauza onetsirik etzutela erabiliko Gotzayari agindu zienean, jantzi beñiak egin zituzten, onetsi gabe utzi ta beren ibilaldietan oyek erabili. Gezurñiak zirala esan baño ori siñetsi nayago det.... Eta ibilaldi bitartean dantzariak egiten zuten dantza ura ¿nolakoa ote-zan? Lenbizikoa zein zan papel zâr ayek ez dasate; baña geroago ezpata-dantza egiten zutela irakurñi det eta lenbizikoa ere ori bera zala siñetsi genezake.



Auzi ontan apezak gaizki zebiltzala ekusi degu. Anaidiko bazkideak asko ziran, aitabitxi ona zuten eta apez gaxoai geyenez burua makuñ-arazi zien; baño gauza bakoitzak bere aldia du ta laistef apezak ere, garaitzale anzo, burua jasoko dute; 1656-gařen urtean, Agirẽ'tar Frantzisko apezari Gotzayaren agintzak gaztigatu zizkienen, onek erantzun zuan: «bai, nere Nagusiaren agintza oriek beteko ditut, baño nere eskubideen kalte gabe». 1682-gařen urtean Jaun ori Lekeitio'ko apezan buru zan, eta eztabaida gogaikari au bein betiko antolatu beár zuala ta, Jose Ibañez Galate zin-emañleari dei egin eta esan zion: Auria'n gertatzen danaren ageria idatzi ezadazu. Eta onek auxe idatzi zuan: «Uri ontako San Pedro'ren Anaidiak Donianez urteoro Auria'ra egiten duan ibilaldira izan naiz eta endore, ziñegotzi ta apezak an ekusi ditut; baña beren artean ezertxo ere eztute autuan erabili ta erabakitzen San Pedro-etako pozaldi ta jayetzaz. Zelai artara dijoaz, bazkide asko dantzan asten dira, neskatxak ere bai, ta an egiten danak, elizako gauzakin zer ekusirik batere eztu. Ori egia dala uri ontan edonork daki».

Agirẽ'k, bere ta beste apezan izenean, urte artantxe esaten zion Gabriel Eparza, Kalaorako Gotzai jaunari: «Lekeitio'ko urian egin beár ez liraken bi gauza galgañiren oitura degu. Donianez, ilunkeran, San Pedro'ren Anaidiko bazkideak—auzorik geyenak dira bazkide—Auria'ko zelaira joan oi dira, ta gero gizaseme ta emakumak beren dantzakin, uri guzian zeár kairaño datořz. Ibilaldi au Doniane goratzeko egiten dala-ta, apezak ere joatea nai ta naiezkoa dala uste dute anaidide oyek, eta gere Nagusien erabakiak erakutsiz, ortara beañtu gaituzte. Eliz-bira ba'litz... baña ofen antzik ere eztu; eliz-ezaugafi batxo ere ezta eramaten; apezai ezta-

gokien itzal gutxiko jostaketa bat, besterik ezta ibilaldi ori. Apezak Auria'ra eramateko, oyek ere beren zeregiña ba zutela an; Anaidiko ogasunzai ta uriko agintariekin batean, San Pedro-jayak antolatzen zituztela esan zien zure aurretikoai; baña ori aitzaki ta akiakula besterik eztala jakin dezazun, zin-emalearen ageri au aurkezten dizut. Beste oitura galgarí bat ere ba da uri ontan. San Pedro biaramoneko ibilaldian, Done oren irudi ta apezzen bitarte, iru itxas gizon joaten dira beren zomofo ta eliz-jantzi zabalekin. San Pedro iruditzen duan erdikoak, buruan Gotzai-turua ta eskuan giltza, eramaten ditu ta San Andres eta San Joan iruditzen dituzten bi aldamenetakoak ere, beren burestun edo koroekin joaten dira, begira daudenai paf-egin-araziz eta askori gaizpidea emanaz. Uri ontara, itxas-kaya dalako, arotz askotxo etóri oi dira, siñause ta siñesgabeak ere bai: órengatik egiten dan ori, anbat kaltegaríago da. Apezak, ibilaldi ontara ez joateko edo beintzat jantzien gaizki erabiltze ori galerazteko, alegiñik asko egin dute: baño alperík. Anaidikoak asko dira, apezak zematu egin dituzte, ta orai arte ezertxo ere ezin izan dute iritxi. Bestela, Anaidiaren elizkizun guzietara, ta jantzi oyek kendu ezkeru, ibilaldira joateko ere, beti gertu egon dira ta gu ere gertu gaude. Guzía, dan bezelaxe adierazten dizut, Zuk gure Gotzai zeran órek, arazo ontan sori edo zilegi dana ta eztana berezi ta erabakiz, apezai zer egin bea' duten agindu dizayezun, eliz-arauden kaltez eta itzal gutxiko dana eragotziz eta orai arte eman diran eliz-nekeak bea' bestean kendua.

Bere epaya Garoil edo Ago'aren 22-an eman zuan Gotzai jaunak, onela aginduz: «Kristau arotzai gaizpidea eman eta siñausleai par-egiñarazi dizayeketen gauza dalako, San Pedro biaramonez Lekeitio'n egiten dan ibilaldi órtañ zomofoz jantzitako gizon oriek eliz-jantzi, turu, burestun eta zetrerik ez bezate erabili: bestela, apezak eliz-bira ori ez bezate egin eta ibilaldira ere ez bitez joan. Nere agintz au batzuek eta besteak zintzoro bete bea' dute; bete ezik, lau apezik zârenak beren eskubideak gal bitzate eta órtañ jantzi ditezen gizon oriek ere, eliz-neke nagusipean berealaxe erori bitez.

Eta San Pedro'ren Anaidikoak, Doniane arátsalde, Auria'ra egiten duten beste ibilaldi órek elizkizunekin batere zer ikusirik eztualako, apezak ez bitez ora joan, ez elkárekin oro ez banezean, eta norbait ba'lijoa, bere eskubideak gal bitza. Nere agintza oyek bete-arazteko egiñena, eliz-nekeak ipiñi ta kendu, lotu ta askatzeko eskubidearekin, Lekeitio'ko apez-buruari ematen diot eta erabaki

oyen aurka izan ditezken orai arteko agintza guziak atzeratu ta kentzen ditut». (1)

Gotzai jaunaren agintza oriek apez guziei ta bakoitzari gazingatu zizkien urte artantxe. Apezak beren Nagusiaren erabakiak gogoz eta berealaxe bete zituztela esan bearik eztago; baña antziñatiko oiturak zearo kendu ta uztea gauza gaitza da-ta, Anaidikoak etzituzten abegi onez artu. Eliz-jantziak erabiltzeari utzi zioten ala ez ezin esan nezake; baño ibilaldia egiten jaraitu zutela dirudi. 1690-gaŕen urtean etofi zan Lekeitio'ra Pedro Lepe jaun bikaña, Kalaorako Gotzai ospatsu, argi ta jakintsu ura. Zurŕasun andiz eta maitaki itz-egin zien Anaidiko bazkideai eta guzien iritzi ta atsegiñez, bi ibilaldi oyen ordez, Doniane ta San Pedro biaramonean, arátsaldeko zazpitan, bi elizbira egiteko agindu zuan (2). Gañera, eliz-gauzak beren bizibidekoekin nâstu gabe, ayen artu-emanak Anaidiko liburuan bereziki eramateko eta oituraz egin eta ospatzen zituzten elizkizunen arauak ere, bi ilabete báru, bear bezela idazteko eskatu zien. Arau oriek 1691-gaŕen urteko Ilbeltzaren 6-an idatzi zituzten, Talayako beren etxean bildurik, eta oraindik Markiñan zegoan Gotzai jaunak, bi egun geroago, zuzetsi edo ontzat eman zituan.

*
* *

Eliz-bira ta kaxa-aldaketa onela berezi ziran, auferakoan bakoitza bere garayan egiñaz; eztabaidak ere utzi ta âztu ziran bein betiko. Geroztik kaxa-aldantza ori (*noiz* eta *nola* egin ote-zan? Arantzaleak beren arteko gora-berak antolatzeke antziñatik zeuzkaten arauak, 1766-gaŕen urtean zerbait aldatu ta ber-idatzi zituzten. Bederatzigárenak onela dio: *kaxa-aldaketa eliz-bira ondoren egiteko oitura degu*. Oitura onek aspaldi orrela egiten zutela esan nai du; baño bi gauza oyek berezi ziran urte artan berean asi ta aurera ¿eliz-bira ondoren egin ote-zuten beti? Bayetz dirudi; baña ziur eztakigu.

Antziña ogasunzai bériaren etxera San Pedro'ren kaxa eramanar beste gabe, ogasunzaitzaren jabe egiten zutela esan det: 1766-gaŕen urtean ori ere aldatu zuten, bederatzigáren arauak

(1) Idazti zar oyek eliz-nagusian, San Pedroren Anaidiko liburu báruan daude.

(2) Urte gutxiz onantza bi eliz-bira oyek Doniane ta San Pedro egunez eta arátsalde erdian egiten dira.

dionez: «Ogasunzai beñiaren *etxera kaxa eramati*az, *eztegu adierazi nai*, orain arte adierazi degun bezela, ogasunzaitzaren jabe egiten degunik, ez: ortarako ogasunzai beñiak, beñ bezelako iru sendesle edo *fiadore* eman beñko ditu, ta ori egin arte, kaxa bere etxera eramamanean, ogasunzaitza lengo zāfaren eskuetan bego. San Pedro biaramonean, eguerdi aurretik, aukeratzen zuten ogasunzaya ta bere sendesleak aurkezteko, ogei ta lau orduren epea ematen zien. Ogeitalau ordu bañu beñ bezelako sendeslerik aurkeztu ezik, kaxa ogasunzai zāfaren etxera itzultzen zuten eta berealaxe zeregin ori ordezkariari eskain'tzen zien. Onek ere beñ bezelako sendeslerik aurkezten ezpazuan, besteren bat aukeratzen zuten, eta sendesleak eman ezkerok, kaxa bere etxera aldatu. Iru autaldi egin eta nai zan ori iritxi ezik, urte artan Anaidia bera gelditzen zan kaxa ta ogasunzaitzaren jabe (1).

Nola egiten ote-zan? San Pedro'ren irudia kaxa gañean zera-matela, eliz-bira ta kaxa-aldaketa, biak batera egiten ziran garai artan, dantzariak ezpatadantza egiten zutela ba dakigu. Bi gauza oyeke berezi ziranean, ezpata-dantza egiteari berealaxe utzi ote-zioten? Gaur bezela, gizon bakarañak kaxa gañean dantza egiteko duten oitura ori ñnoiztik onekoa ote-da? Oitura ori noiz asi zan, 1691-gañen urtean ala geroxeago ezin esan dezaket, asiera oren aztarnarik ez tet arkitu-ta.

Gaur bizi diran askok kaxařenkaren bi era ezagutu dituzte: lenbiziko era, arantzaleak beren ogasunzaya zuten garai artakoa; bigařena, ogasunzayaren ordeze lendakari ta diru-zaya dituzten azken aldi ontakoa. Aldakuntza ori egin zutela oraindik urte gutxi dira (2).

Lenbiziko era. Eliz-bira bukatu ondoyen, Anaidiko guziak edo geyenak eta kaxařenka ekusi nai zuten beste asko ere bai, ogasunzai zāfaren etxe aldera joan oi ziran: kaxa kalera atera ezkerok, mutil gazteak beren soinburuetan arñtu oi zuten; dantzaria kaxa gañera igoten zan, eta erpiñean *zegazko* zapi gorñ zeraman kañabera bat eskuan zuala, bere dantzaketa iru tokitan egiten zuan, bakoitzean iru dantzaldi labur, gaur egunean bezelaxe: lenbizi, ogasunzaitza uzten zuanaren etxe, aũean, gero Anaidiko San Pedro'ren irudi aũean eta azkenez ogasunzai beñiaren etxeko atetan. Onen etxean gelditu oi zan kaxa, uřengo urterarte.

(1) Anaidiko idaztiřartegi, 4-g. bilgo, 1766 gařen urteko araudi.

(2) Aldakuntza au 1903-gařen urtean egin zan: azkenengo ogasunzaya Antonio Alzibar eta lenbiziko lendakaria Bruno Larazabal jaunak izan ziran, Garagařilaren 26-ko agerkayak dionez.

BigarĒn era:

Orai—1903—gĀren urtetik aona—ogasunzairik ez dute: kaxa Anaidi etxean dago: oĀngaitik kaxaĒenka antxe asi oi da, ta atuntzura joateko eguntxo bat irabaztearen, azkenengo bospasei urte oyetan San Pedro arĀtsaldez egin da. Gotzai-turua ta giltza egalunez atereak dauzkan ikuĀintxo goĀia jartzen dute goizean-goiz Anaidiaren etxeko leyo batean, lorez apainduta, kalera begira. ArĀtsaldeko eliz-bira ondoren, endore ta ziĀnegotziak, eresbatzak biribilketa jotzen duala, Anaidiaren etxera dijoaz. KaxaĒenka ekusi nai duten lagun asko ere aruntz joan oi dira. Zortzi arĀntzale gaztek arĀtzen dute kaxa beren soinburuetan. Dantzaria, txamara beltz-laburĀ, galtza zuri ta geĀiko goĀiz jantzita, esku batean kapela kasko luzea ta bestean aipaturiko ikuĀintxo ori dituala, kaxa gaĀean jaĀtzen da. Atabalariak tuntuna ta txistua jotzen dituzte. Dantzaketan asi orduko, bere kapela ta ikuĀiĀna erabiliz eta burua makuĀrtuz, lau aldetakoei itzal aundiz agur egiten die. Dantzaketa iru tokitan egiten du, bakoitzean iru dantzaldi labur: zorĀtziko bat, fandango ta arin-ariĀnaren ataltxo bana; lenbizi, Anaidi-etxean, San Pedro'ren irudi aurĀan; bigarĒn, lendakariaren etxe ondoan eta azkenez, ArĀnegiko enparantzan; baĀna baldin lendakaria enparantza ori baĀno urĀtiago bizi ba-da, bigarĒn dantzaldia enparantza orĀtakoa izan oi da ta azkena, lendakariaren etxe auĀekoa. Bein ori egin ezkeru; kaxa, dantzaria bere gaĀean dala, Anaidi-etxera daramate txistulariak lagunduz, eta oĀnbestez kaxaĒenka bukatu da. Dantzaldi oyeĀ ekus ditzazuten Atxabal jaunak—kaxa gaĀean, ez baĀno bai emen agertokian—orain berealaxe egingo ditu.

*
* *

Lekeition urtero egiten dan jai au ekustera laguntalde aundia dijoa beti: guziak atsegin-pozez egoten dika ta dantzaldi bakoitzaren bukaeran txaloak gogoz jotzen dituzte. Izan ere, kaxaĒenka gure arĀntzale azari, bularĀtsu, zintzoen oitura zĀra da, ta aspaldi egiten dan bezela, guziz txalogaĀi ere bai. Ain begiko ditugun arĀntzale oyeĀ arbasoen oitura onen jarĀntzale bitez: asaben oroimen laztana zearo gal eztedin, orĀtan zintzo iraun bezate. Eta guk ere, gere eĀiaren eĀai ta biotzean erne ta oraindik bizi diran oitura on-garbiak—diranak dirala—gogo onez ekus, maitaki begira ta txaloz gora ditzagun.

EGUSKITZA